

EGUZKIAREN ZALDIAK ETA PAETON (ERROMA'KOA)

Apolo zan eguzkiaren jainkoa eta zeruaren azken-mugan egoan bere jauregi ikusgarria. Antxe bizi zan Ordua, Eguna, Illea eta Urtea bere mirabe zituala. Antxe gordeten eban bazter baten eguzkiaren sugurdia eta gurdi au egunero zeruaren alde batetik bestera eroaten eben zaldi bizkor eta indartsuak.

Eguzkiak goizero jazten eban soiñeko beillegia, buruan urrezko koroia, goizero lotzen eutsozan zaldiak gurdinari eta egunero egiten eban bere ibillaldia.

Mendi-muiño baten egunero egiten eutson bere agurra mutiko batek, baiña oso urrin egoan Apolo'k ikusi al izateko. Gaiñera zeregin aundia zan Apolo'rentzat eguzki-zaldi bizkor areik bear eben bidetik eroatea, lurreko mutil kozkor bateri begira egoteko.

Paeton zan ume ori eta besoetan jazoten eban Klime-ne bere amak. Eskolako lagunai arro esaten eutsen berak, Apolo eguzki jainkoaren semea zala. Eta guztiai emoten eutsezan aitaren barriak. Lagunak irri eta barre egiten eutsoen Paeton'eri eta zoratuta egoala esaten eutsoen.

Mutil sendo biurtu zanean, Paeton'ek amari esan eutson lagunak barre egiten eutsoela eta zer egin leikean lagunuen agoa itxiteko.

– Ene seme- esan eutson amak adorea emoteko- aita-gana joateko bide luzea daukazu, asko poztuko da zu ikusteagaz, semetzat artuko zaitu eta gero iñork ez dau-tsu irri-barrerik egingo.

Joan zan mutilla aitaren jauregi ederrerrantz eta egu-nak eta egunak igaro-ondoren eldu be egin zan .Esan eutson ate-zaiñari nor zan eta onek jauregi-barrura sar-tzen itzi eutson.

Eldu zan eguzkiaren aurrera eta onen argi biziak ia itsutu egin eban eta onen beroak ia kizkaldu. Aurrean eukan Apolo urrez jantzita eta auzpez gurtu eban eta uste osoz esan eutson:

– Ene jainko aundi, Apolo! Paeton nozu ni eta Klime-ne neure amak bialdu nau zugana zuk semetzat artu nagi-zun. Zeuk esanda jakin nai dot egia dala amak diñoana eta orrelan amaituko dira nire zalantzak eta aurpegia emongo dautset nire lagun irrilariak.

Apolo'k maitekiro besarkatu eba Paeton eta esan eutson:

- Kendu biotzetik, seme, kezka orreik, seme zaitut, bai; naiko dot zure arpegia eta zure kemena ikustea. Apolo'ren semea izan ez ba'ziña ez zendun ibillaldi luze au egiteko adorerik izango eta nigandik doatzun

beroa jazateko almenik be ez. Neke aundiak artu dozuz nigana etorteko eta ondo sarituko zaitut. Eskatu, seme, nai dozuna eta emongo dautzut.

- Egunero ikusten zaitut zeruan su-gurdia eroaten. Itzi egidazu neuri be gurdi ori eroaten.

- Ez, seme, gaztetxua zara orretarako. Zaldi oneik barriz, indartsuak eta biurriak.. Ez daukazu zaldiak eroateko bear dan beste indar.

- Eskatuten dodana emongo daustazula esan dozu. Bai nik zuzenduko dodaz eguzki-zaldi orreik, ez nau ezerk ikaratzen

Arpegi goibelagaz lotu ebazan urrengo goizean Apolo'k zaldiak gurdian. Igon erazo eban Paeton eta bere eskuetan ipiñi ebazan zaldien ugalak eta naigabez agur egin eutson semeari.

Zaldiak larri egozan eguneroko ibillaldia egiteko eta laster asi ziran lau-oinka eta gurdiak alboetarantza egiten eban. Paeton'ek doi-doi al izan eban zutunik egon.

Zeruren goi-aldera eldu ziranean berantza jatsiten asi bear eben eta larregi urreratu ziran lurrera eta Paeton'ek alegiñak egin arren, ezin izan ebazan ugalakaz zaldiak eskuratu. Konturatu ziran zaldiak ez zala Apolo gidaria eta bildur barik oker jokatzen asi ziran.

Jokabide orretatik oker andiak sortu ziran lurrean:Beroak lur-azaleko zugatzak erreten ebazan eta lurra bera be kizkaldu, itxasoa eta ibaiak berotu ziran, otz-aldian, ostera laiñoak edur biurtu... Giro oso txarra lur-gaiñean.

Jupiter jainko nagusia be bildurtu egin zan eguzki-zal-dien jokabide okerragaz eta lurreko bizia galdu ez dedin, bide batzuk artzea erabagi eban: Bota eutson Paeton gidari gazteari tximista bat eta au jausi zan gurdi-gaiñe-tik eta zeruan urtu egin zan, tximista orrek zaldiak ikara-tu ebazan eta apal biurtu ziran euren etxun-lekura gidari barik.

Oso goibel geratu zan Apolo seme barik. Eta eguzkia gidatzeko gogoa be galdu egin eban, baiña azkenean igon zan gurdira eta artu ebazan ugalak eskuetan, eguzki-zal-diak bideratzeko.

Orrelan lasaitu ziran koba-zuloetan oztenduta egozan gizaki errukarriak eta pozik ikusi eben eguzkia bere bidean. Laster konpondu ebazan eguzkiak egindako kalte guztiak.

OLAZAR'TAR MARTIN'EK